

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Babeslea



Bi mundu-gerra izugarriren artean kokatua, 1920ko hamarkada, gizartearen, jakintzaren, artearen eta kulturaren hainbat arlotan bide berriak etengabe bilatzeagatik nabarmendu zen. Hainbat izan ziren urte haietan lortu ziren konkistak, besteak beste, aisialdia gehiengoari zabaltzea, gutxiengo jakin batzuk bistaratzea, hiri modernoan diseinua, tabu ugari haustea, aurkikuntza zientifikoak —mekanika kuantikoaren sorrera, esaterako, fisikaren oinarri ziren printzipio klasiko asko zalantzan jartzen zituena— edo genero-rolak zalantzan jartzea, baita emakumeen emantzipazio hasiberria ere; horra hor garai hartan sortu zen norabide-aldaketa aditzera ematen duten lerroetako batzuk. Izan ere, hamar urte eskasetan, eztanda harrigarria gertatu zen, sormena, askatasuna eta bizkor zabalduko zen bizi-gogoia ernatu zituena.

Abiadurak dimentsio izugarria hartu zuen hamarkada horretan, baita informazioaren transmisio-bideek ere (batez ere, telefonoak, irratiak eta sortu berria zen telebistak), eta garapen ikusgarria bizi izan zen ikus-entzunezkoen arloan ere. Erakusketa honek agerian uzten duen bezala, esperimentazio artistikoa jaun eta jabe zen eremu guztietan; norabide biko mugimendua den heinean, gainera, arteak eragin zuzena zuen inspirazio-iturritzat hartzen zuen gizartearengan, sakonetik eraldatzen ari zen gizarte harengan.

Artelan paregabe sorta batez gain, *Urte eroak: 1920ko hamarkada* erakusketak beste objektu eta dokumentu batzuk ere biltzen ditu, publikoari garai hartako metamorfosien hainbat alderdi ikusarazteko asmoz. Moda, arkitektura eta altzariak estiloa eta funtzionaltasuna ezaugarri zituen bizimodu berri baten adierazle bihurtu ziren. Gainera, zinema eta argazkilaritza, musika eta dantza ikuspegi desberdinetatik aurkezten ditu erakusketak, bisitariak garai hartako giroan murgiltzea helburu hartuta.

Bizkaiarekin eta gure garaiko gizartearekin hartua dugun konpromisoa medio, BBK-ko kideok pozarren gaude erakusketa hau babestu izanagatik, horrek aukera ematen baitigu iraganean barneratzen den proiektu honen parte izateko. Bertan, gaurkotasunarekiko paralelismo ukaezinak antzeman daitezke, eta gako garrantzitsuak har ditzakegu gure aurrean ditugun erronka handiei aurre egiteko. Guggenheim Bilbao Museoak arteari eskaintzen dion esparru paregabeari esker, ziur nago publikoak jakingo duela balioesten guztiz mitikoa izan zen hamarkada hari buruzko irakurketa berezi, kreatibo, intelektual eta sensorial hau, mende bat geroagoko begiradaz egina, oso antzeko intentsitatearekin hasi dugun hogeiko hamarkada berri honen argitan.

Xabier Sagredo
BBK-ko Presidentea

Urte eroak: 1920ko hamarkada

- Datak: maiatzaren 7tik irailaren 19ra
 - Komisarioak: Cathérine Hug, Kunsthaus Zürich, eta Petra Joos, Guggenheim Bilbao Museoa
 - Eszenografia: Calixto Bieito
 - Guggenheim Bilbao Museoak eta Kunsthaus Zürich museoak batera antolatutako erakusketa
 - Babeslea: BBK
-
- 1920ko hamarkada aurrerabidearen garai bat izan zen, baina baita erreakzio garai bat ere, Lehen Mundu Gerran bizitako esperientzia traumatikoarekiko eta 1918an jarraitu zion pandemiarekiko, oraingo koronabirusaren antzeko ezaugarriekin. Horrek guztiak bizitzeko irrika bizia —erakusketan islatua— piztu zuen jendearengan.
 - Guggenheim Bilbao Museoaren eta izen handiko dramaturgo eta opera-zuzendari Calixto Bieitoren arteko lankidetzaren aitzindaria da erakusketa honen berritasun nagusietako bat. Izan ere, Bieito arduratu da eszenografiaren, arte plastikoaren eta arte eszenikoaren arteko elkarrizketa jori bati bide emateko.
 - Joan den mendeko hogeiko hamarkadak sormenaren eta liberazioaren eztanda ekarri zuen berekin artearen arlo guztietan eta bizi-estiloan ere, eta bidea ireki zien hainbat aldaketari, gaur egun oraindik ere indarrean dirautenei.

Guggenheim Bilbao Museoak *Urte eroak: 1920ko hamarkada* erakusketa aurkezten du, BBKren babespean. Hamarkada iraultzaile horretan barrena eskaintzen den ibilbide suspergarri bat da, ikusgai dituen 300etik gora objektu adierazgarri, garaiko diziplina artistiko nabarmenetakoak; pintura, eskultura edo marrazkitik hasita, argazkilaritza, zinema, collage, arkitektura eta altzari-diseinuraino.

Erakusketak Europako hainbat hiritar hurbilduko du Museoeko bisitaria. Berlin, Paris, Viena eta Zurich dira hiri horiek, aldaketa eta aurrerabide nabarmenak bizi izan zituztenak arlo guztietan, horietako asko indarrean gaur egun ere. Nahiz eta ezin den alderatu oraingo hamarkada 1920koarekin, paralelismo harrigarriak daude bien artean. Duela mende bateko gizartea pandemia baten traumak jota bizi zen, eta Mundu Gerraren ondoren izandako atzeraldi ekonomiko batean murgilduta. Hala eta guztiz ere, aurrerabidearen hamarkada ere izan zen, sormenak eta liberazioak eztanda egin zuten garai bat, eta horregatik hain zuzen, etorkizunari begira adorea eta inspirazioa ematen duten ideiak eskaintzen ditu atzerabegirako honek.

Garai horri eskainitako beste erakusketa batzuen aldean, *Urte eroak: 1920ko hamarkada* erakusketa honek bereizgarri hauek ditu: zazpi atal narratiboetan zehar islatzen du hainbat mugimendu progresistaren arteko trukea —besteak beste, Bauhaus, Dadaismoa eta Objektibotasun Berria— eta arkitekturaren eta diseinuaren ikonoak hartzen ditu barnean, urte transformatzaile haiek nabarmendu zituen dibertsitate formala aditzera ematen dutenak. Erakusketa hau 1920ko hamarkadaren klixeeetatik harago doa, helburu hartuta mugimendu estetiko haiek arakatzea, eragin eta garrantzi izugarri handia izan baitzuten bere garaian, eta oraindik ere, gu horretaz jabetu ez arren. Erakusketan 1920ko hamarkadako hizkuntza formala eta gaiak gaur egun haien lanean modu nabarmenean darabiltzaten artista garaikideen artelanak ere sartu dira, eta horrela erakusketa orainarekin lotzen da.

Erakusketaren beste berritasun nagusietako bat hauxe da, Guggenheim Bilbao Museoaren eta izen handiko dramaturgo eta opera-zuzendari Calixto Bieitoren arteko lankidetzaz aitzindaria; Bieito arduratu da erakusketaren eszenografiak, eta harreman aberasgarri bat sortu da horrela arte plastikoaren eta eszenikoaren artean. Bilboko Arriaga Antzokiko oraingo zuzendari artistiko eta Basileako Antzokiko zuzendari egoiliarak, ibilbide joria eginga duenak nazioartean —80 opera eta antzezlan baino gehiago zuzendu ditu— ondo asko ezagutzen du garai hura; hala, jakintza horrek aukera ematen du erakusketari ikusmolde eszeniko bat emateko, intelektuala eta zirrargarria aldi berean.

Azken batean, publikoa harrিতuta utziko duen erakusketa bat da, non asmoa ez den garai haiek modu nostalgiko batean berreraiki edo gogora ekartzea, baizik eta oroimenean atxiki eta zentzumenen bidez agerian uztea gure sorburu kulturalak, baita nabarmentzea ere historiaren fase desberdinak antzekoak eta desberdinak izan daitezkeela aldi berean.

Erakusketak Bilbon duen komisario Petra Joosen hitzetan “joan den mendeko hogeiko urteek eztanda eragin zuten sormenean, liberazio erotikoa, pulsio sexuarean eta feminismoan; bestalde, ordea, biziki piztu zituzten trauma, borroka, eta ekonomia basatia eta errukigabea. Eta ‘erotasan’ hura guztia oso modu berezi batean islatzen da Guggenheim Bilbao Museoan, eszenografiaren zuzendaritzari esker, Calixto Bieitoren eskutik”.

Erakusketaren izen handiko zuzendari eszenografikoak erronka edo aldarrikapen bat planteatzen du “aprobetxatu dezagun ‘Urte ero’ haietako esperientzia, sormen-askatasunean konfiantza izateko eta ez erortzeko mundua bere katastrofe handienetako batean murgildu zuten hutsegiteetan. XXI. mendeko gure hogeiko hamarkada ez dadila bihur *Infinite Jest* (amaigabeko broma)”.

ERAKUSKETAN BARRENA

1920koa, zailtasunek ez ezik, aurrerabideak ere markatutako hamarkada da: ziztu bizian hazi ziren hiriak, zalantzan jarri eta aldatu egin zen familiaren kontzeptu patriarkala, eta talde sozial kaltetuek beren haserrea erakusteko leku bat aurkitu zuten kulturaren eta politikan. Bestalde, langileen baldintzak hobetu ahala handitzen joan zen asiaren industria, eta espirtu berritzaile batek elikatzen zuen artea, non diziplina guztietara hedatu zen esperimentazioa.

205 aretoa. Gerraren trauma atzean utzita

Begien bistako etsairik ezak, gerra amaigabearen desgasteak eta masan fabrikatutako armen suntsipen-ahalmen anonimoak traumatizatu egin zuten gizartea. Garai hartan, gatazkak oraindik jarraitzen zuenean, influenza motako birus bat, bidegabe “gripe espainiarra” izena eman zitzaiona (horrela deitu zitzaion herrialde honetako prentsa, zentsuratik aske, lehena izan zelako birus horri buruz informazio zabala ematen) mundu osoan zehar hedatu zen eta milioika pertsona hil zituen, 1918 eta 1920 urte bitartean luzatu zen pandemia batean.

Gero eta gehiago zatikatzen eta azeleratzen ari zen mundu batek sortutako errealitatearen pertzepzio berriak ezaugarritzen du aldi hura; Fernand Léger pintoreak 1924an adierazi zuen bezala: “Inoizko handiena da gure garai honen ikuskizun-gosea. [...] Fanatismo hau, kosta ala kosta entretenituta egoteko behar hau, gure bizimodu gogor eta gabeziaz beteriko honen aurkako beharrezko erreakzioa da”.

Garrantziko aurkikuntza, erakusketan islatua, mekanika kuantikoa izan zen; eremu horretan erabateko eragina izan zuten Werner Heisenberg-en, Max Born-en eta Niels Bohr-en ideiek; Nobel saridunak hiruak. Ezagutza horretatik abiatuta, garrantzizkoa ez da orain atomoaren eraikuntza, laguntzen dioten prozesuak baizik. Ondorioz, ordura arteko kontzeptu estatikoek, identitatearenak, kausalitatearenak eta objektibotasunarenak, bide eman zieten etengabe mugitzen diren anibalentziaren, zoriaren eta ziurgabetasunaren kontzeptuei.

206 aretoa. Rol berriak, eredu berriak

Gizonak eta emakumeak gizartean betetzen dituzten rolen inguruko ideia berriak estu lotuta daude Lehen Mundu Gerrari eta bere ondorioei. Gizonek frontean borrokan zihardutenez, emakumeek, bai lanaren bai familiaren eremuetan, askatasun berriak berenganatu eta aldarrikatu zituzten, eta horrekin batera, nolabaiteko autonomia. Hala, 1918az geroztik emakumeen sufragio-eskubideak Europako leku askotan izandako sarraldi mailakatua izan zen aldaketaren manifestaziorik ahalmentsuena.

Aldaketa hori argi eta garbi aurki daiteke garaiko modetan. Gizonak bizarra kentzen hasi ziren, eta ilea gominaz finkatzen; onddo-kapelak ordeztu zuen kapela luzea, eta traje informalago batek eta gorbata dotoreak ordeztu zuten lebita zurruna. Emakumeen artean arrakasta izugarri handia izan zuen ile motzak, baita belaunera arteko soinekoak, gerririk gabeak, baita pose dotoreetan erretzen zuten noizean behingo zigarroak ere. Europa osoan zehar, nobelek eta ikerketak desafio egiten zieten usadio sexual konbentzionalei, eta tabuak hausten zituzten “perbertsio” jakin batzuen inguruan. Parisen, 1922an, Victor Margueritteren *La Garçonne* (“Mari-mutila”) *best-sellerra* argitaratu zen, Kees van Dongenen ilustrazioekin 1925ean; aldi berean, Berlinen, Alexandra Kollontairen *Wege der Liebe* (2Maitasunaren aldaketak) argitaratu zen. Azkena aipatutako autorearentzat, pasioak eta maitasunak definitzen dituzte “emakume moderno eta langilearen” bizitzako fase espezifikoetako batzuk eta, jakina, emakume bat ama izan zitekeen ezkondata egon beharrik izan gabe. Lanbide berriak sortu ziren, idazkariarena besteak beste, eta lanpostu jakin batzuen edukia kuestionatu zen; horietako batzuk zehatzago aztertzen dira atal honetan.

207 aretoa. Ikusteko modu berriak

“Ikusteko modu berriak” diogunean, 1970eko hamarkadan pentsatu ohi dugu, mendebaldeko etxeetan eguneroko objektu bihurtu zenean telebista. Hala eta guztiz ere, hogeiko hamarkadan, jendeak gauzak ikusten zituen modua dagoeneko hasia zen aldatzen hauen eraginez: mugikortasun handiago batez agerraldia egin zuen abiadura (automobila), fabriketako lan-metodo berriak (muntaketa-katea) eta informazioa transmititzeko bide berriak (irratia).

Zinema eta argazkilaritza, artearen munduak ordura arte neurri handi batean alde batera utzitako diziplinak, gero eta gehiago hasiko dira aintzakotzat hartzen zenbait artistaren aldetik —haien artean Hans Richter eta Fernand Léger— baita gero eta izaera esperimentalago bat hartzen ere. Bukatu egin zen eztabaida, batetik, “arte figuratiboa/Objektibotasun Berria” defendatzen zutenen artean, eta bestetik, “abstrakzioa/Konstruktibismoa” defendatzen zutenen artean, edo etenaldi bat izan zuen behintzat, 1930eko hamarkadaren hasierara arte. 1920an Walter Ruttmann zuzendariak hau zioen: “Denboraren espezifikotasuna gure garaiaren ‘abiaduraren’ ondorio da batez ere. [...] Horrela, bada, gure hausnarketaren helburua kurbaren fisionomia eta bilakaera tenporala da —etengabeko eraldaketan—, eta ez puntu isolatuen justaposizio zurruna”.

Argazkilaritzaren arloan, esperimentu ausartenak Man Rayren eta László Moholy-Nagyren eskutik etorri ziren, besteren artean, berdinik ez zuten haien “Photogram” haien bitartez (kamerarik gabeko argazkiak), edo *Film und Foto* (“FiFo”) izeneko erakusketarekin; erakusketaren komisarioetako bat Moholy-Nagy izan zen, eta lehen aldiz 1929an Stuttgarten ikusgai egon ondoren, Zurichetik hainbat hiritarra bidaiatu zen —Berlin, Danzig, Viena, Zagreb, Munich, Tokio eta Osaka—. Garrantzi handiko erakusketak izan zen hura, bertan aurreneko aldiz aurkeztu baitziren batera zinema eta argazkilaritza; gaur egun, telefono adimendunaren aroan, nahiko begien bistakoa dirudien paralelismoa.

202 aretoa. Modaren iraultza

Atal honek aztertu egiten ditu nola islatu ziren modaren prismatik aurretik aipatutako emakumeen eta gizonen autopertzepzioan izandako aldaketak. Gaur egun ere, Coco Chanelen “soineko beltz txikiak”, 1927 inguruan sortuak, garai hartan abiarazi zuten emakumearen emantzipazioaren adierazpenik intenporalena izaten jarraitzen duena gaur egun ere.

Emakume berria, “garçonne” edo “flapper” deitua, industria kosmetiko modernoaren produktuen kontsumitzaile sutsu bihurtu zen, eta kirurgia estetikoarekin ere hasi zen esperimentatzen, gerrako zaurituen aurpegi desitxuratuak berregitetik edertasun idealen bila jarduten hasitako kirurgiarekin. 1927an Lucien Lelong moda-sortzaileak hau idatzi zuen: “Dietek, gorputz-ariketak, aparatu eta tratamendu erreduktoreek, aire zabaleko kirol jardueraren hedapenak lortu dute hori —edo hori dio, behintzat, iritzi orokorrak—. Emakume modernoa bere irudiaren arkitekto bihurtu da. Bere burua bere idealaren arabera berregitea lortu du [...]Gaur egun, emakumeak gazteak dira berrogei urterekin ere”.

Modaren industrian zetaren sektorea gailendu zen hornitzaile gisa. 1920an zetaren industriaren sinonimo zen Suitza, Europan handiena, eta EABetan ere sukurtsalak zabaldu zituen. Atal honetan, adibide batzuek,

historikoki esanguratsuek, aditzera ematen digute zetazko produktuen aukera zabala eta artisten eta industriaren artean zegoen sinergia. Sektore hau, ahaztua orain, funtsezkoa izan zen ekonomiaren goraldirako eta Suitza moderno eta oparo bat sendotzeko.

203 aretoa. Lana eta aisia

1920ko hamarkadako diseinuaren eta arkitekturaren ikonoak irmo geratu zaizkigu barneratuta garai horri buruzko gure imajinarioan. Funtsean, lan-munduan izandako aldaketei esker eraman zitekeen bizimodu nabari bat. Zalantzarik gabe, jendearen eguneroko bizitzan eragin handiena izan zuen transformazioa fabriketan ezarritako muntaketa-kateak ekarri zuen berekin. Kontsumo-ondasunak masan ekoizteko aukera emateaz gain, murriztu egin zituen langileen lanorduak, eta horrek ekarri zuen berekin aisia-industriaren loraldia.

“Bauhaus” diseinu-eskolak, 1919an Weimarren eta 1925ean Dessaun irekiak, gizarte hobeto eta demokratikoago bat eraikitzen jardun zuen hezkuntza eta kultura oinarritzat hartuta. 1928an Josef Albersen zioenez, artistaren lanbidea primeran egoki zitekeen gizartera: “Ekonomiara erabat bideratuta dagoen garai batean gaude. [...] ikastea baino garrantzitsuagoa da probatzea, eta hasiera ludiko batek aurrera jarraitzeko adorea ematen du. Horregatik, ez gara sarrera teoriko batekin hasiko: hasieran, materiala bakarrik dago”. 1928an *Congrès Internationaux d'Architecture Moderne* (CIAM, 1928–56) inauguratu zen Hélène de Mandroten gazteluan, La Sarrazen, frantses hiztunak dituen Suitzako herrian. Hasierako elkarraldietan, bertan parte hartzen zuten batzuek —Karl Moser (kongresuaren lehenengo presidentea), Le Corbusier, Walter Gropius eta Gerrit T. Rietveld, besteren artean— asmo handiko aldarrikapen bat egin zuten: sozialki arduratsua zen arkitektura, garaiko espiritua irudikatuko zuena. Alderdi hori diseinuaren eremura ere hedatu zen, eta horren erakusgarri dugu erakusketaren atal honetan aurkezten diren aulkien diseinu ikonikoak.

208 aretoa. Gorputzaren nozio berriak

Areto honetan dantzaren pertzepzio eta forma berriekin egiten du topo ikusleak, dantzari ospetsu eta distiratsuen bitartez, besteak beste: Suzanne Perrottet eta Rudolf von Laban —dantza espresionistaren aitzindariak Alemanian—, Valeska Gert, Mary Wigman, Anita Berber eta Gret Palucca. Azken honi buruz Moholy-Nagy argazkilaria eta pintoreak berotasun handiz adierazi zuen 1927an: “Estetika berri bat formulatzen ari gara saiatzen, eta oinarriak falta zaizkigu oraindik [...] Dantzaren munduan, Paluccak ez du parerik, oraingoz [...] Haren gorputza, dantzaria bera, dantzaren kultura berri baten adierazpen garbiena irudikatze bide bat da”. Garai hark ikusi zuen ere nola iritsi zen Jazza EABetatik Europara, ahalmen, indar eta bizitasun nabari batekin espresatzen ziren soinuak ekarrita, denboraren pertzepzioa aldarazteraino.

2020ko hamarkadaren erronka handienetako bat hau da: nola lortu gorputzaren, adimenaren eta gizartearen arteko oreka. Dantza baliozko metafora bat da nahi bizi hori betetzeko —bai hogeiko hamarkadan bai oraingoan—. Esan ohi denez, 1968ko belaunaldiak fisikotasunaren iraultza bati eman zion bidea, eredu tradizionalak baztertu zituen iraultza hain zuzen, gorputzaren kontzientzia zabalago eta asertiboagoak aldarrikatzen zituena. Ikusten dugunez, gauza bera esan liteke 1920ko hamarkadaz. Atal

honetan, zenbait artista garaikidek —besteak beste Rashid Johnson eta Shirana Shahbazi— diskurtso horiek orain duten gaurkotasuna erakusten dute.

209 aretoa. Irrika

“Urte eroen” muina gaueko dantzetan dago: estasiszko dantzak, sentsualtasunez beteak, Montmartre eta Montparnassekoak, Parisen, edo Moka Efti aretokoak, Berlinen. Erakusketa amaitzeko bizimodu emantzipatu eta sentsual baten adierazpide paregabe hau aukeratu da, non Josephine Baker dantzaria den irudi ospetsuena. Bera izan zen ikuskizunaren munduan izar bihurtutako aurreneko pertsona beltza, Europan lortu zuena arrakasta, ez ordea bere jaioterri AEBetan, segregazioa eta debekua zirela eta.

Josephine Bakerri egozten zaio charlestonaren sarraldia eta arrakasta Europan. Hala, nabarmentzekoa da Parisko emakumeetan dantzariak izan zuen berealdiko eragina: aurpegiko larruazal zuria bereizgarri zuten emakume haiek intxaur-kremak erabiltzen hasi ziren larruazala ilundu eta ‘ebanozko jainkosa’ izenez ezagun zen dantzari gailenaren antza hartzeko. Haren nortasun karismatikoari, talentuari eta eszenatokian gorputzaren eta arimaren adierazpen-askatasuna inolako trabarik gabe erakusten zuen moduari esker, bere gaizki-esaleak desarmatu eta arrakasta itzela lortu zuen Bakerrek.

Areto honetan, erakusketaren osagarri diren hainbat esperientziaz gozatu ahal izango du ikusleak. Izan ere helburu horrekin eman zaio erakusketari ikusmolde eszeniko intelektual bat, kabaret literarioen bitartez besteak beste, eta emozional bat aldi berean, zirrara eragiten diguten garaiko koloreen, lurrinen, pelikulen eta musikaren bitartez. Hemen, dantza egiteko aukera izango du bisitariak, jazzaren, charlestonen, edo garaiko *Chansonsen* erritmoan, baita musika dodekafonikoko konpositore klasikoak entzuteko ere.

DIDAKTIKA

Arte eszenikoen garrantzia

Didaktika proiektuaren barruan —BBKk babestua— espazio honetan online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak erakusketa bakoitzaren osagarri gisa, ikusgai dauden obrez gehiago gozatzeko tresnak eta baliabideak eskaintzearen.

Hala, erakusketarako diseinatutako espazio didaktiko honek informazioa eskaintzen du urte haietan hasiera emandako eta oraindano dirauten hainbat gairi eta diziplinari buruz —besteak beste neurozientzia, psikiatria eta psikologia— eta hainbat ikerlanen garapenari buruz —besteren artean Vladimir Betz, Theodor Meynert eta Santiago Ramón y Cajal neuroanatomistena—. Horiez gain, beste gai batzuk bildu dira bertan, esaterako, giza gorputzaren pertzepzioa edo feminismoa XX. mendearen lehenengo hamarkadetan, oso presente zeudenak Berlin, Paris, Viena eta Zuricheko giro intelektualetan; baita hainbat diziplina ere, esaterako dantza, musika, antzerkia, zirkua eta literatura; garai hartakoak eta oraingoak. Fritz Langen zinematografia, Josephine Baker dantzari arau-hauslea eta antzerki modernora Max Reinhardten eskutik iritsitako iraultza sortzailea dira funtsezko gakoetako batzuk erakusketaren Didaktika gunean bildutakoak.

Erakusketari loturiko jarduerak

Mahai-ingurua (maiatzak 5)

Erakusketaren sarrera gisa, Kunsthaus Zürich Museoko Cathérine Hug eta Guggenheim Bilbao Museoko Petra Joos arte-arduradunek funtsezko gakoei helduko diete erakusketaren diseinatzaile eta Arriaga Antzokiko zuzendari artistiko Calixto Bieitorekin batera. Aurrez aurrekoa eta *streaming* bidez.

Hausnarketa partekatuak

Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza arloetako profesionalak eskainitako aparteko bisita hauetan ikuspegi desberdinak ematen dira erakusketa berriaren edukiei buruz.

- Arte-arduradunen ikuspegia (maiatzak 19): Museoko arte-arduradun Petra Joosek ibilbide bat egingo du erakusketako obra nagusietatik.
- Funtsezko kontzeptuak (maiatzak 26): Marta Arzak, Hezkuntzako Zuzendariordea, obren gako nagusiei eta didaktikoei buruz arituko da bertarutzen direnekin aretoetan.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Institutu Frantsesaren proiektzioa: Montparnasseko maitaleak (maiatzak 14)

TopARTE programaren barruan, Guggenheim Bilbao Museoak Amadeo Modigliani artistaren bizitzari buruzko *Les Amants de Montparnasse* ("Montparnasseko maitaleak") filma proiektatuko du *Urte eroak: 1920ko hamarkada* erakusketaren kariatara, urte haien aurrekari gisa. Filma (1958) Jacques Beckerrek zuzendua eta Gérard Philippe mitikoak antzetzua da. Proiektzioaren ondoren solasaldi bat izango da, frantsesez, Bilboko Institutu Frantseseko pedagogia-koordinatzaileak moderatua.

Ekintzak tokiko sortzaileekin (ekainak 3, 10, 17, 25 eta uztailak 1)

Museoarekin lankidetzan, profil desberdinetako tokiko sortzaileek interbentzio laburrak egingo dituzte aretoetan. Hala, 1920ko hamarkadaren interpretazio berri bat emango dute, oraingo begirada batetik eta hainbat ikuspegitatik. Parte-hartzaileak: Lucía Astigarraga, Raúl Cancelo, Alex Gerediaga, María Goiricelaya eta Sergio Verde.

Hitzaldia: Gatazka gainditzen: Neurozientzia gerrartean: lehena eta oraina. (ekainak 16)

David Eaglemanek, neurozientzialari eta idazle estatubatuarrak, gizakiaren organo konplexuenean, hau da, nerbio-sisteman aditua denak, burmuinaren ikerketek gerra arteko aldiaren eta orain arte izan duten garapenari buruz jardungo du. Solasaldi birtual erakargarri hau *streaming* bidez emango da AEBetatik.

Errezitaldia: Juan Echanove (irailak 11)

Aukera paregabea Vienako Karl Kraus dramaturgoaren testuez gozatzeko, espainiar eszenako antzezle gailenetakoa den Juan Echanovek egingo duen irakurraldi apartean. *Urte eroak: 1920ko hamarkada* erakusketa dela-eta propio diseinatutako ekoizpena da.

KATALOGOA

1920ko hamarkadak inoiz ez bezala hezurmamitu zuen norabide berrietarantz abiarazitako bidaia, baina baita erorialdiak ere. XX. mendean zehar, berritzeko desioa ez zen inoiz izan urte haietan bezain bizia, eta arteetan esperimentatzeko borondatea izan zen garai hartako transformazio nabarmenaren erakusgarri argi bat. Erakusketaren katalogoak ilustrazio ugari biltzen ditu eta ibilbide bat egiten du iruditan “urte ero” horietan barrena. Bertan, gainera, hainbat alderdiri heltzen zaie autore hauen bidez: Cathérine Hug, Jakob Tanner, Gioia Mori, Alexis Schwarzenbach eta Petra Joos.

Azaleko irudia:

Christian Schad

Maika, 1929

Olio-pintura zur gainean

65 x 53 cm

Bilduma pribatua

© Christian Schad Stiftung, Aschaffenburg, VEGAP, Bilbo, 2021

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Urte eroak: 1920ko hamarkada
 Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsako online irudien zerbitzua

Museoaren web-orriko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus) erregistratu zaitezke bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistratu zaitezte eta behar duzuen materiala deskargatu. Dagoeneko erabiltzaile bazarete, sartu zuen erabiltzaile-izena eta -gakoa, eta sarbide zuzena izango duzue irudien deskargara.

- Ematen diren irudiak *Urte eroak: 1920 hamarkada* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2021eko maiatzaren 7tik irailaren 19ra egongo da publikoarentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoko egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko berezimenen izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Online argitalpenean fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin dira transferitu hirugarren bati edo datu-base batera.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake eta alde zuzenetik obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena behar izango du.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa Prentsa Eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan edo posta elektronikoko helbide honetan:

media@guggenheim-bilbao.eus

Max Ernst

Titulurik gabea, ca. 1920

Collagea (gouachea, zuri opakua eta grafito-arkatza inprimatutako paper gainean), kartoi gainean muntatua

Kunsthaus Zürich, Lan grafikoen bilduma,

Dohaintza: Erna eta Curt Burgauer, 1980

© Max Ernst, VEGAP, Bilbo, 2021



Ernest Neuschul


Takka-Takka dantzan (Takka-Takka tanzt), 1926

Olio-pintura mihise gainean

141 × 103 cm

Bilduma pribatua

© Nachlass Ernest Neuschul



Non ote dago nire maitea gaur gauean?, (I Wonder Where My Baby Is Tonight?), 1926

Musika: Walter Donaldson; hitzak: Gus Kahn; azala: Fabien Loris Francis-Day, París (ed.)

Bilduma Dora eta Walter Labhart



Grethe Jürgens

Ileapaindegiko manikiak (Frisierpuppen), 1927

Olio-pintura mihise gainean

Bilduma pribatua

© Sprengel Museum Hannover, Vermächtnis Grethe Jürgens



László Moholy-Nagy

AXL II, 1927

Olio-pintura, grafitoa eta tinta mihise gainean

94,1 × 74,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, Nueva York

Dohaintza, Andrew P. Fuller-en emaztea, 1964

64.1754

© Estate of László Moholy-Nagy

Argazkia: Kristopher McKay



Theodore Lux Feininger, Xanti Schawinsky

Izenbururik gabea, ca. 1927

Argazkia zuri-beltzean, margotua

Lamina: 23,2 × 17,9 cm

Bilduma pribatua, Zurich

© The Xanti Schawinsky Estate /

Nachlass Theodore Lux Feininger 2021



Josef Albers

Hiria (City), 1928

Beira eta opakua beltzez, gorriz eta zuriz

29,1 × 56,1 cm

Kunsthau Zürich, 1960

© The Josef and Anni Albers Foundation, VEGAP, Bilbo, 2021



Madeleine Vionnet

Koktel-soinekoa, ca. 1928

Zeta

Martin Kamer

Argazkia: Kunsthau Zürich, Franca Candrian



Christian Schad

Maika, 1929

Olio-pintura zur gainean

65 x 53 cm

Bilduma pribatua

© Christian Schad Stiftung, Aschaffenburg, VEGAP, Bilbo, 2021



Constantin Brancusi

Estudioko bista (Atelieransicht), 1930–31

Zilar-bromurozko kopia

Kunsthaus Zürich, Argazki-bilduma

Carola Giedion-Welckeren oroimenezko dohaintza, 1986

© Succession Brancusi - All rights reserved, VEGAP, Bilbo, 2021



Constantin Brancusi

Txorria espazioan (Oiseau dans l'espace), 1932–40

Letoi landua

The Solomon R. Guggenheim Foundation

Peggy Guggenheim Collection, Venecia, 1976

© Succession Brancusi - All rights reserved. VEGAP, Bilbo, 2021.

Argazkia: David Heald



Thomas Ruff (*1958)

h.l.k. 02, 2000

Kopia koloretan Diasec Face-rekin muntatua

124 x 180,2 cm

Thomas Ruff, Düsseldorf

© Thomas Ruff, VEGAP, Bilbo, 2021



Gerrit T. Rietveld

Aulki gorri-urdina (Rot-Blauer Stuhl), 1918 (diseinua)

1960ko hamarkada (produkzioa)

Zur margotua

86,5 x 66 x 83 cm

Vitra Design Museum

© Gerrit Thomas Rietveld, VEGAP, Bilbo, 2021

© Vitra Design Museum. Argazkia: Jürgen Hans

